



JENISJOPLIN

Uxue Alberdi
Susa, 2017

Pertsonaia: Narratzailea
27-28. orrialdeak

Zigorak, giltzapetzeak, mehatxuak, maitasun-aitorpenak, erreguak amaitu zitzaizkionean, amama izebari zaldia erosteko dirua ematen hasi zen. Bazekien sosik ematen ez bazion etxetik kanpo hasiko zela lapurretan, Maritxuren farmazian, Joserren estankoan, eskura zuen edozein poltsatan. Poliziarekin arazoak izango zituen eta droga pasatzen ziotenek jipoitu egingo zuten garaiz ez ordaintzeagatik. Amore eman zuen, beste ezeren gainerik.

[...]

Amama Rosa izeba Karmeni heroina injektatzen laguntzera iritsi zen. Besoak egunerero ziztatu beharraz, gero eta zailago zitzaion zainak aurkitzea; ziztatzeko erabili izan zituen gorputz atal guztiak blokeatuta zituen, pultsuak dardarka egiten zion. Alabak azaldu zion droga nola urtu, nola xurgatu xiringan airerik sar ez zedin, nola garbitu orratza, nola sartu zainera.

LANTZEKO GAIAK:

- Zer kontatzen da testu zati honetan?
- Nola lortzen zuten droga kontsumitzaileek dirua?
- Rosa pertsonaiak zer egin zuen lehenik? Eta ondoren?
- Zer iruditzen zaizu?
- Uste duzu sinesgarria dela? Euskal Herrian gertatu da halakorik?

Pertsonaia: Nagore Vargas
275. orrialdea

Pneumonia kontrolatu zidatenean sukarrak behera egin zuen, eta kortikoideen goraldia drogekin izan dudan esperientziarik liluragarrienetakoa izan zen. Barne-oreka gozatsuan nengoen, sekula ez bezalako irekitasun emozional eta buru-argitasun barearekin. Gertakari guztiak logika abstraktu baina, aldi berean, oso sinpleen arabera ordenatzen nituen ia ahaleginik egin gabe. Denari bilatzen nion zentzua, ordena kosmikoarekin bat eginda sentitzen nintzen, esistentziaren sekretuetatik gertu. Denbora eta heriotza ulertzera irits nintekeela iruditzen zitzaidan. Azaltzen ez nekien hura guztia nire baitan zegoen instalatuta. Isilik eta ezer egin gabe egon nintekeen ordu luzetan, izatearen plazer hutsa dastatzen. Ez zitzaidan arnasa hartzea baino ariketa atsegingarriagorik bururatzen.

[...]

Imajina gozagarriak, emeki mugitzen zirenak, eratzen ziren nire baitan. Haizeak lastanduriko belar-soro bat izan zitekeen, zehaztasun sinesgaitzez ikus nezakeena kulunka, eta begi eman nola argi-tonua hotzetik berora mudatzen zen eguztia beheratu ahala. Irdui errepikariak izaten ziren, ez berdin berdinak. [...] Haietako batean igerileku batena ikusten nuen nire burua. Ur urdin argiz betetzen zitzaidan gogoa, argi izpiak iragazten ziren bristada azkarretan, eta irduiaren erdian igerian ni.

LANTZEKO GAIAK:

- Zer deskribatzen du pertsonaiak tesu zati honetan?
- Noizbait izan duzu horrelako sententziorik? Noiz?
- Zein droga ezagutzen dituzu?
- Zein dira legalak? Zein ilegalak?
- Nola imajinatzen dituzu drogaren efektuak? Denenak berdinak dira?
- Droga kontsumitzen duen jendea ezagutzen al duzu? Nolakoak?
- Zergatik kontsumitzen da droga zure ustez?
- Garaiak aldatu direla uste duzu?
- Zertan da gaur egun ezberdina?